

Etxea bizkarrean hartuta txoko guztietara

Oporrak ondo igarotzeko hainbat modu dira kanpinak, karabanak edo apartamentuak

Gero eta egun gutxiago falta dira urteroko oporrak hasteko. Deskantsu eta lasaitasun egunak dira, egunerokotasunetik at, ezohiko gauzak egiteko egunak.

Badira oporrak etxetik mugitu gabe igarotzea atsegin dutenak, edo egun pasako txangoak eginez pasatzen dituztenak, edo bidaia antolatu batean munduko ez dakit zein txoko ezagutze-
ra animatzen direnak, edo hamabost mila izarreko hotel batean egonalditxo bat eginez igarotzen dutenak, edo bakarrik jotaten direnak, koadrilan edo familian, bikotekidearekin...

Hamaika modu aipatu ditza-kegu oporrak igaro ahal izateko,

eta ziur guztiak direla atseginak; izan ere gustuko lekuan neke eta izerdirik ez baita izaten.

Kanpinak

Bestalde, bada oporrak etxe guztia bizkarrean hartu eta karakolen moduan abiatzen direnak.

Oporrak nomada moduan ibiltze-ko desioa dutenak dira hauek; kanpin dendetan, karabanetan edo apartamentuetan bizi diren nomadak.

Gune zabal hesituak izaten di-


ra kanpinak, lekuko meteorologiaren arabera, berdeago edo lehorrago diren lur eremu itxiak.

Triangelu, borobil, lauki eta forma guztietako zein kolore anitzeko kanpin dendak ikusten dira nonahi honelako lekuetan.

Denak bizigarri, eta tokiari forma berezia ematen diotenak.

Mailua eta ziriak eskuan dituzula, momentu batean paratzen duzu kanpin denda egun batzuetan zure tokia izango den lur zatian. Behin denda jarrita, etxetik ekarritako hamaika gauza txukuntzen hasten za-

Oporrak nomada gisa igaro ahal dira kanpin dendetan, karabanetan edo apartamentuetan



EDURNE KOCH

■ Munduko hainbat herri-tako jendea etorri ohi da Zarauzko kanpinera.

ra. Ordu gutxi batzuetan dena duzu prest eta jada bertako sentitzen hasten zara.

Lehengo gaua nahiko berezia izan ohi da, izan ere lurreko zulo guztietara, gaueko tenperatura-
ra, aldameneko jendearen zurrungetara edo parrandazaleen ohituetara ohitu behar duzu.

Hurrengo goiza txutxumutxu eta begirada lotsatiz beterikoa da. Nor izango zen zurrunka hain ozen egiten zuena? Nor

kantari aritu den parrandazalea? Nor.....? Zer moduz gerria? Eta txoko horretako zulo horri zerbait egin behar diogu, e? Naturarekin zuzeneko harreman-
an zaude, dudarik gabe.

Bestalde, etxetik ekarritako janari eta gauzeekin moldatu behar, eta bestela, kanpalekuko dendara berehala.

Komunerako joan-etorriak, ontziak eta arropak garbitu, d-
txa eta abarrerako batzuetan

Arantzako ATERPEa

ARANTZA (Nafarroa)
Tel. 948 63 41 79

BERAZADI BERRI
baserria

JATETXEA
Talai-Mendi auzoa
Tel.: 943 83 34 94
20800 ZARAUZ (Gipuzkoa)

HOTEL NORTE

AMEZTI KALEA, 1
TEL : 943 83 23 13

20800 ZARAUZ

ALDARRETA

Nekazalturismoa
Tel.: 943 18 03 36 • 20211 ATAUN

BERTIZ
PARTZUERGO TURISTIKOA

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA
Tel: 948 59 23 23
Faxa: 948 59 22 75
31720 OIEREGI - BERTIZARANA (NAFARROA)
<http://www.hiruakbat.biaizpe.net>

VIAJES GHEISA®

- EZKONBERRIENTZAKO BEREZIA: TENERIFE (%25KO BEHERAPENA)
- DOMINIKAR ERREPUBLIKA - KUBA - KANKUN - ITSAS BIDAIAK (%8KO BEHERAPENA)

Agustín de Leiza, 13 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) 943 59 13 00

San Martín, 66 20007 DONOSTIA (Gipuzkoa) 943 47 10 82

Pza. San Agustín, 7 b. 48950 ERANDIO (Bizkaia) 944 17 51 22

Gure arreta guztia daukazu

ERROTA KANPINA
ATERBETXEA

Mendigorría (Nafarroa) Tel.: 948 34 06 04

Nafarroako erdialdean kokatua, zure oporrak eta asteburuak pasatzeko. Ikastolek, ikastetxeek eta jubilatuen elkarteek ibilaldiak egiteko, kirol elkarten txangoetarako eta, orobat, gazteentzako aterbetxe bezala ezin hobea den kokapen eta klima baten jabe.

Honako hauek ditu kanpinak:

- Hesiz mugatutako partzelak
- Saneamendua
- Argia eta ur edangarria
- Ur beroko zerbitzu zabalak
- Erabat ekipatutako apartamentuak
- Prezio bereziak pentsio osoko taldeentzat literak dituzten geletan
- Piraguisimo ikastaroak
- Mendiko bizikletak
- Supermerkatua
- Taberna
- Self-service jatetxea
- Igerilekuak
- Squasha
- Haur parkea

Galdetu prezioak karabanen gordelekuetarako

NATUR

NEPAL ETA MAROKON TREKINA: EGUNEROKO IRTEERAK 2 PERTSONEKIN

KILIMANJARO IGOERA: EGUNEROKO IRTEERAK 2 PERTSONEKIN

ELBRUS ETA MT. BLANC IGOERAK ETA MT. BLANC BUELTA EMATEA UDA OSOAN

IRTEERA BERMATUAK

- + apirilak 18: Mendia eta Basamortua 14 egun
- + ekainak 30: Elbrus igoera 12 egun Koldo Aldaz gidaria
- + uztaillak 1 eta abuztuak 4: Baltoro-Gondogoro 24 egun
- + uztaillak 16: Pirinioetako 7 egunetako (zirkuitoak) (zeharkaldi borobilak) uda osoa

Paulino Caballero k. 40
Tel.: 948 29 03 50
pcaballero@marfilviajes.com